

ABIADURA HANDIKO TRENA. Jaurlaritzak jasangarritasunaren alde hedaturiko mezuak kontraesankor direla salatu dute

Eider Goenaga | **TOLOSA**

«Gure herrietan, gure udaletan eta gure udal araudietan ez dago AHTrako lekurik». Ezker abertzaleko 25 hautetsik argi eta garbi bota zuten mezu hori atzo, Tolosan batzarra egin ostean. Abiadura Handiko Trenak (AHT) kaltea egingo duen 19 herritako zinegotzi eta alkateek egin zuten bileran —Beasain, Ordizia, Urnieta, Errenteria, Bergara, Antzuola, Zizurkil, Itsasondo, Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Donostia, Alegia, Hernani eta Tolosa, Gipuzkoatik; Galdakao, Bilbo eta Elorrio, Bizkaitik; Gasteiz eta Legutio, Arabatik—, eta AHT gelditzeko eskatu zuten, hiru puntuko adierazpenean.

Bileran, AHTren gaia udalgintzaren ikuspuntutik landu dutela azaldu zuen Iñaki Antiguedad Lurralde Antolaketan aditu eta aholkulariak, eta haren ondoren, Antton Izagirre Tolosako alkateak eta Mireia Unamuno Antzuolako alkateak hartu zuten hitza.

AHT «inposaketa moduan» ikusten dutela adierazi zuen Antton Izagirrek, Tolosan elkartutako guztien izenean, eta «erraz eta arrazoitu gabe» justifikatzen dutela trenaren beharra. Gainera, udalen eskuduntzak ez direla kontuan hartzen adierazi zuen, eta Eusko Jaurlaritzari horiekiko «errespetua» eskatu zion, «Jaurlaritza delako, gaur, egitasmoaren sustaizale sutsuena».

Modu berean, Lakuako gobernuaren eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hitzak eta ekintzak kontraesankorrak di-

«Gure herrietan ez dago AHTrako lekurik» diote herri kaltetuetako hautetsiek

Otsailaren 1ean Tolosan egingo duten manifestaziora deitu dute



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko 19 udaletako ezker abertzaleko zinegotzi eta alkateak, atzo, Tolosan.

rela adierazi zuten. «Jaurlaritza lau haizeetara ari da Udalsarea 21 zabaltzen, jasangarritasunerako udalerrien sarea; eta gure ardura politikotik, begi onez ikusten dugu ekimena. Baina

AHT jasanezintasunerako tresna da, pentsatu besterik ez dago hainbat herritako naturan proiektuak eragingo duen hondamendia».

Ibarretxek 2001ean egingako

adierazpenak ere ekarri zituen gogora Izagirrek. «Garapen eredu berria ondorio guztiekin onartzeak oraingo ereduaren aldaketa sakona esan nahi du. Gure pentsatzeko era, gure ba-

lioak, gure bizimoldeak eta gure kontsumo ohiturak aldatu beharra dago», esan zuen Ibarretxek orduan. Izagirrek esan zuenez, atzo Tolosan bildutakoak bat datoz haren esanekin, «baina ez gero egingakoarekin». «Izan ere, AHTren egitasmoak aurretik esandakoekin zerikusirik ez duela sinetsita gaude; are gehiago, lehendik datorren bide okerrean gero eta gehiago sakontzea, eta jasangarritasunetik gehiago urruntzea esan nahi baitu», nabarmendu zuen Izagirrek.

Jaurlaritzaren «harrokeria» ere salatu zuten atzo Tolosan elkartutako hautetsiek. «Horra hor, egunotan, non eta Parisen esana! AHTren Irun eta Zumarraga arteko lanak bere kabuz abiarazte handinahia agertu du Lakuako gobernuak», esan zuen Izagirrek.

Manifestazioa otsailaren 1ean Tolosan

AHTk «inolako justifikaziorik» ez duela eta, 25 zinegotzi eta alkateek dei egin zieten beste udal guztiei, «egitasmoak dakarren gizarte ereduaren inguruan gogoeta egiteko». Gizarteari, era berean, AHTren kontra antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko deia egin zioten.

Hortaz, AHT Gelditu! Elkarlanak otsailaren 1ean Tolosan egingo duen manifestazioari atxikimendua azaldu zioten, eta dei egin zuten herritarrek parte har dezaten. «Unea delako gure ezetza agertzeko; unea delako hiritarrak mugiarazteko. Unea, azken batean, garapena zer den eta zer ez zabalean eztabaidatzeko», adierazi zuten.

EUSKARA. 210.350 euro izango ditu Ikastolen Elkarteak; Nafarroako Gobernuak, aldiz, 18.000tik 6.000ra murriztu du laguntza

Tuteran iaz egindako Nafarroa Oinez jaiak Udalbiltzaren diru laguntza eskuratu du

Erredakzioa | **IRUÑEA**

Udalbiltzak 210.350 euroko diru laguntza eman dio Tuterako Nafarroa Oinez jaialdiari, «udal elkartasunaren seinale». Nafarroako Gobernuak, hain zuzen ere, ikastolen aldeko jaiendako diru laguntza jaistea erabaki du aurten, eta 6.000 euro jasoko ditu Tuterako ikastolak. Aurreko aldietan 18.000 eurokoa ohi zen laguntza.

Atzo sinatu zuten Ikastolen Federazioak eta Udalbiltzak hitzarmena, Iruñean. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkate eta Xabier Azanza Ikastolen Elkarlearen lehendakaria izan ziren ordezkariak.

Udalbiltzak ondoren banatutako oharrean azpimarratzen du euskara Euskal Herriko eta Europako hiritar denen kultur ondare berezia dela, eta hizkuntza guztiak direla aniztasunaren adierazle.

«Horrexegatik, herri aginte demokratikoen oinarritzko erantzukizuna hiritarren hizkuntza eskubideak zaintzea eta babestea da, eta, batez ere, hizkuntza gutxituen aldeko politika sustatzea».

Udalbiltzak euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea babesteko eta neurri eraginkorrak hartzeko eskatu zien, atzo bertan, erakundeei, eta bereziki, Nafarroako Gobernuari.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Tuterako Argia ikastolako haurrak, aurtengo Nafarroa Oinez-eko hasiera ekitaldian zinta mozten.